

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/1/21 | 336

🌀	Ibon Artola eta Jon Azpiroz
🌀	Hara, zergatik ez euskaraz? (VI) Telefono konpainiak
🌀	Nazioarteko gaurkotasuna ikasgai eta aztergai
🌀	Raul Zelik, Lagun armatua
🌀	Juan Mari Ansaren Aralarko Malloak



Asvinenea Arte eszenikoen laborategia



ARETO
NAGUSIAN
*Etorri aurretik
izena eman!*

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA URTARRILAK 27 osteguna, 17:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA URTARRILAK 27 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

DONOSTIA URTARRILAK 29

larunbata, 10:30 MIRAMONGO
Parke Teknologikoko eraikin nagusia



NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZIN. SIF



**AMAIA ETXETXIPTA
BIOLOGA**

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK

PLAN RENOVE LEIHOETAN



- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC - EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39

CITROËN, 5 URTE SALMENTETAN LEHENA
OSPAKIZUN BAT MEREZI DU



CITROËN C3 1.1 LX 9.600 €*



CITROËN C4 PICASSO 16.600 €*

ORAIN,
ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA
OPARI**

Kontsumo mixtoa (L/100Km) / Emisioa CO2
(G/Km): C3: 3,8- 6-9/ 99-158, C4 PICASSO:
5.07.0/ 132-177.

(*) 2016ko aldiro eta plurimotako automobilen ekoiztailaren erabileraren datuak. **Guztira: C3 1.1 LX, C4 Picasso V6 130 Buztina (Zurgak, gertara, beharrezko eta berrabiarazteko laguntza berrak) lezatu pertsonarentzat, ulertuta garrantziak Maltako baliabeteak. Beharrezko gogoragarri. Buztina mota: C3 1.1 LX 110 b/Ekologia eta C4 Picasso Exclusive Plus. Aurkitu utziari utziari utziari utziari utziari (360€ 25 urteko garrantziarekin eta 600€ 25 urteko beharrezkoak). Zurich Insurance PLC. Karga-erantzule eta Espainian enbajadoreak duen Berezko PSA Finantza Itelak, 6.000€ko kapital minimoarekin. Erabiltzaile datuak pertsonalari mugatuta eta Erabiltzaile mugatuta dituzten itelak utziari utziari.



CITROËN

CREATIVE TECHNOLOGIE



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea
 Orbeago, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA




Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Asvinenea, arte eszenikoen laborategia

Duela zortzi urte sortu eta azken urtean egituraketa aldetik birplantamendua jaso duen Arte Eszenikoen Laborategia da Asvinenea. Adunan kokaturiko lokala magiaz beterik dagoela ezin ukatu, edozein txoquetara begiratuta ipuin magiko bateko protagonista sentiarazten du bertarutatukoa; sorkuntzarako toki aproposa.

8-11. orrialdeak

Arkitekto sevillarra. Ezohiko arkitektura bultzatzen duena. Ikasketak amaitu eta bere ideiak praktikara eraman ditu azkeneko hamarkadan, gehienak egoera alegetan oinarriturik, erantzun sozialak emateko intentzioarekin. Tolosako Box.A Arte Elkarateak gonbidatuta Santiago Cirugeda Tolosan egon da bere lanaren nondik norakoen berri emateko.

Santiago Cirugeda

14-16. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Ibon Artola eta Jon Azpiroz	4-5
	Normalizazioa: Imanol Haro	6-7
	Eskualdeko albisteak: Nazioarteko gaurkotasuna ikasgai eta aztergai	12-13
	Irakurlearen begietatik: Raul Zelik, Lagun armatua	17
	Kultura: Juan Mari Ansaren Aralarko Malloak	18-19

Pentsioen erreforma eta urtarrilaren 27ko greba orokorra



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

4 Bankuen eta enpresa handien diktadurari eta Zapateroren gobernuaren eraso basatiei aurre egiteko langile klasearen borroka da alternatiba bakarra. Azkeneko neurriak ere enpresarien irabaziak handitzeko izan dira.

Langabezia sorospena bukatuta eta karga familiarak zituzten langabetuen 426 euroko laguntza kendu den bitartean diru publikoa oparitu zaie gehien dutenei beste behin: AENaren eta Estatuko loterien pribatizazio partziala, Madrilgo eta Bartzelonako aireportuen kudeaketa osoaren pribatizazioa, enpresen zerga murrizketa berriak... Baina neurri gehiago eta gogorragoak etorriko dira. Orain datoren eraso pentsoien erreforma izango da erretiratze adina 67 urtera luzatzeko helburuarekin.

Estatu espainiarreko erregeak azaroaren 15ean eta Zapaterok azaroaren 27an Estatuko 37 kapitalista garrantzitsuenekin (bertan ziren euskal kapitalista nagusiak)


egindako bileren ondoren garbi dago PSOEn gobernuak langileak erasotzen jarraituko duela. Hartzen ari diren neurriek erakusten dute demokrazia burgesaren faltsutasuna. Hego Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko biztanleriaren gehiengoaren bizia 37 familia aberatsenen diktadurak gobernatua dago. Gutxiengo bat diren parasito hauek ez ditu inork aukeratu, baina hala ere dena erabakitzen ari dira, ez bakarrik maila ekonomikoan, baita politikoan ere.

Langile klaseak eta gazteriak ditugun eraso larritasunak erakusten du jarraitu beharreko bidea Ipar Euskal Herriko eta Estatu frantziarreko sindikatuak hasitakoa dela, hau da, ekintza sindikalaren batasunarena. Burgesia elkartuta

mantentzen bada langile mugimenduaren aurka, langileok ere beharrezkoa dugu gure indarrak elkartzea. Ekintza sindikalaren batasuna beharrezkoa da; langileen zatiketaz onura ateratzen duten bakarrak bankariak eta enpresariak dira. Borroka bateratuak ez du esan nahi sindikatu batek bere errebendikazioak alde batera utzi edo gainontzeko sindikatuak kritikatzeari utzi behar dionik; guztiz aurkakoa, hori posible da eta beharrezkoa gainera. Burgesia espainiarren eta euskal herritarren eraso bateratuen aurrean, beharrezkoa da langile mugimendua elkartuko duen politika defentsibo bat. Batasun hau posible da iragan den urtean zehar ELA, LAB, UGT eta CCOOK antolatutako mobilizazio bateratuetan frogatu den bezala. Azken adibidea lau sindikatuak igandeetan eta jai egunetan komertzioak irekitzearen aurka abenduaren 19an Bilbon antolatutako manifestazioa da. Horregatik, kasu honetan, UGT eta CCOOK euskal gehiengo sindikalak pentsoien erreformaren aurka antolatutako urtarrilaren 27ko greba orokorra babestu behar dute. Berdina egin behar dute CIG sindikatu galiziarrek Galiziarako egun berean antolatutako greba orokorrarekin, eta nola ez, greba orokorra Estatu osora zabaldu beharko lukete.

Ekintza sindikalaren batasunarekin eta langileek borrokarako duten borondatearekin posible da erasoei aurre egitea. Helburu honetan, urtarrilaren 27ko greba orokorraren

deialdia pauso garrantzitsu bat da. Baina urtarrilaren 27ko greba orokorrak jarraipena izan behar du, langile klasearen antolakuntza maila eta kontzientzia igoko dituen goranzko borroka prozesu batekin. E-29ko eta I-29ko greben ondoren gauza bat bistakoa da: bi greba orokorrekin lan erreforma ez bazen geratu, beharrezkoa da kapa berriak mobilizaziora erantsiko dituen eta sendotasun gehiago emateko denboran zabalduko den estrategia. Langile eta gazte frantziarren errebolta soziala, 1968ko maiatzetik handiena, edo langile greziarren borroka, inspiratu behar gaituzten adibideak dira. Burgesiaren planak gertatzeko beharrezkoa da ekintza plan erabateko bat, eta U-27aren ondoren erasoak ez badira atzera botatzen, agintari sindikalek plan horretan 48 orduko greba orokor berri baten deialdia sartu behar dute.

Garai historikoen aurrean gaude. Greba orokorrek, kapitalismoaren krisia eta honen ondorio larriak borrokatzeko langileen adierazpen antolatua direnek, ardatz bezala izan behar dute programa antikapitalista eta sozialista baten defentsa. Sistema ustel honen erasoekin bukatzeko modu bakarra sozialismoaren alde borrokatzea da, banka eta monopolio handiak langileen kontrolpe demokratikoan nazionalizatuz. Modu honetan langabeziaren amesgaiztoa ezabatu genezake eta hezkuntza, osasuna eta zerbitzu publiko eta duinak bermatu. 

Urte berri on Galtzaundiko irakurleoi

Erregeak etorri dira geroxeago eta aurretik Olentzerorekin prestaturiko oparirik ederrena hurrengo egunetan etorri da.

Itxaropena ekarri digute zaku handi handi batean, denek eskaturiko desioa. Itxaropena da ateratzen zaigun hitza, ezin du desilusiorik sortu honelako notiziarik eta zenbait egunkari eta notizi entzunda batzurentzat desilusia izan da. Ez da Olentzerori eskaturiko Ferrari teledirigitu eta argitxoz beteriko hori baino kotxe gorri teledirijitua bada, eta niri behintzat ilusia eta itxaropena piztu dit.

Esan bezala itxaropena dugu behingoz (eta errespeto guztia-rekin) bizkarzainak langabezia gera daitezen, herria denon artean eraiki dezagun, denon hitza entzuna izan dadin.

Itxaropena herriaren nahia bete dadin, hitzaren bidez proiektu guztiak defenda ditzagun, lagunak bisitatzera 1.000km egin ez ditzagun, kallean lasai lagunekin solasaldi bat egin dezagun atzera begiratu gabe eta itxaropena pixkana barruko minak sendatzen hasteko.

Notizia garrantzitsua da oso, itxaropena eta pozezko negargurea eta lasaitasuna izango dute geure guraso askok, 40 urtetan bizituriko gatazkaren zati lazgarri bat momentuz geratu delako eta zergatik ez itxaropena betirako izatea?

Baina nolabaiteko desuztea ere suertatu digute aste honetan geure ordezkari politikoek. Prentsa irakurrita balorazio positibo eta negatiboa, baietak eta ezetak, etab. Hedabidee-

tan denetarikoa azterketak egin, norbanakoak larritu egiten baikara, ez al dute gure politiko hauek azken urteetako su etenaz ikasiko, ondo manejatuko eta bide onera eramango? Jada hasi dira bata besteari putzak botatzen, ez al dira denok elkarturiko, gela batean sartu, hitzegingo eta konponbidea aurkituko? Itxaropentsu gaude baina...

Itxaropentsu gaude, gure generazioak bizi izan baitu, txikitan, 80. hamarkadako une gogor horiek. Zer hobeto, gure seme alabek, belaunaldi berri honek, oraingo txikiek egoera hori ez bizitzea baino?

Ea behingoz gatazka armatuz mintzeari uzten diogun eta arazo politiko, ekonomiko eta sozialei beharreko arreta egiten diogun. Poliziaren jarra emakumeen kontrako bortxaketak ekiditzea bideratzen dugun eta hauteslei eta gainerakoen babesara bideratzen diren txanponak gizarteratzen ditugun. Zeinu guztietako indar armatuak gure herritik aldegiten duten eta beharreko pake eta zorionean bizi gaituzten elkarri.

Orain deskantsatzea eta momento gogoz bizitzea tokatzen zaigu. Hurrengo hilabeteak nola pasatzen diren ikusi. Hauteskundeak datoz, denok nahi dugun alderdiari bozka emateko eskubidea izan dezagun eta ondorengoetan izango dira zer esan eta jokatu.

Guztioi benetazko itxaropena eta ilusia opa dizuet urte berri honetan.

Denen artean orain bai! ☺



Jon Azpiroz

Bedaioako Artubi Elkarteko kidea

Urte berri on Galtzaundiko irakurleoi. Pasatu dira eguberritako jaiak, oporrak batzurentzat eta jaiak eta ilusia txiki-entzat. Izan gara Olentzerori kantatzaten. Olentzeroak aurten egin du bere paratxoa eta ikatza eta opariez gain pasa beharreko zenbait birus utzi dizkigu. Jai hauek ilusioz pasatzekoak diren arren aurten gehienok pairatu ditugu barizela eta gripea, etxea edo inguruko lagunetan, lehengo urtean baino indar handiagorekin baina urte berriari gogoz ere aurre egin diogu eta beharrezko desio eta gogoak azalduz jan ditugu mahats ale majikoak.

Hara, zergatik ez euskaraz? (VI)

Telefono konpainiak

Imanol Haro
UEMAko hizkuntz normalizatzailea

6 Zenbat aldiz deitu dizute telefono konpainia batetik eskaintza "ezin hobea" egiteko? Zenbat aldiz deitu dizute euskaraz? Badaukagu eskubiderik telefono bidezko elkarrizketa euskaraz egin diezaguten eskatzeko? Badaukagu heldulekurik fakturak eta gainerako idatziak euskaraz jasotzeko? Aurreko aleetan, hizkuntz eskubideak zer diren eta arlo jakin batzuetan euskaldunok ze hizkuntz eskubide ditugun izan dugu hizpide. Gaurkoan, telefono konpainiek euskararekin zer-nolako bete-behar dituzten ikusiko dugu.

Zer egin dezakegu telefono konpainiakoak euskaraz hitz egitea nahi badugu?

Askotan, ia beti, telefono konpainiatik deitu eta zuzenean gaztelaniaz hasten dira. Zer gertatuko litzateke informazioa euskaraz emateko eskatuko bagenie? Askotan, telefonoaren beste aldean dagoena ez da Euskal Herrian egoten, eta horregatik zerbitzua euskaraz eskaintzeko bete-beharrik ez dutela erantzuten

dute, ez langileak berak, ez telefono konpainiak.

Horren aurrean, argi eduki behar da hizkuntza eskubideak hartzaileari dagozkiola. Beraz, gu gauden lurraldearen logika nagusitzen da: Tolosaldean egonik, euskara berezko hizkuntza izateaz gain ofiziala ere bada, eta edozein enpresa horri egokitu beharko lioke bere eskaintza komertziala. Nolanahi ere, bistan denez, euskara berezko hizkuntza

eta hizkuntza ofiziala izateak ez du behar adinako legezko garapenik harreman komertzialak arautzeko.

Herritar bati Telefónicarekin gertatutakoa

Hona hemen herritar bati

Telefónicarekin gertatutakoa: herritarrak deitutakoan, hizkuntza hautatzeko aukera eman zioten (Castellano edo Euskara). Euskaraz aukeratu eta mezu hau atera zitzaion: "Une honetan operadorea... Dei ezazu geroago". Sei edo zazpi aldiz deitu zuen, eta, azkenean, lortu zuen langile euskaldunarekin hitz egitea. Langileak aitortu zion lehen bost lagun euskaldun zeudela telefono deiak jasotzeko, eta gaur egun bakarra. Telefónicako langileak aholkatu zion kexa jartzeko; hartara,





kexa asko jasotzen badira, beste euskaldun bat gutxienez kontratatzen behartuta egongo lirartekeela. Herritarrek kexa jarri zuen 1.485 zenbakian.

Hartara, urraketen aurrean, komeni da jarrera aktiboa hartzea eta kexa egitea: horretarako, enpresek derrigorean eskaini beharreko erreklamazio bideak aprobetxatu daitezke. Gainera, zure kasua Hizkuntz Eskubideen Behatokia (902194332) edo Elebidera (012) ere bidera dezakezu.

Euskaltelek, bestalde, auke-

ra ematen du bezeroekin ahoz euskaraz egiteko. Horretarako, 262ra deitu behar da.

Eta badugu fakturak eta bestelako idatziak euskaraz eskatzeko biderik?

Idatzizkoan, eremu pribatuko beste jardun komertzialetan (saltokietan...) bezala gertatzen da: badugu esku-bidea, baina ez legezko garrantzi eskubide hori bermatzeko; batez ere, Jaurlaritzak hizkuntz eskubideei buruzko dekretua aldatu zuenetik.

Nolanahi ere, telefono konpainia batzuek ematen dute fakturak euskaraz jasotzeko aukera.

Tolosaldeko Euskararen Semaforoak jakinarazi duenez, Movistarreko bezeroak 1004ra deitu behar dute euskarazko faktura eskatzeko, Euskaltelekoek 1717ra, Vodafonekoek 123ra, Yoigok 622ra eta Eroski Movablek 902540340ra. Beste telefono konpainia batzuek ere badira, baina ezin izan ditugu oraingoz datu gehiago bildu (Jazztel, Ya.com...). ☎



BENTA ALDEA

JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ

arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Zozketa



Atila y los unos
Zuretzat gurekin... Javi

Eurne Garzia Azurmendi



Une Akustikoak eta bestelako uneak

Oihana Sanchez Artieda



Juan Mari Ansa
Las Malloas de Aralar

Mikel Goikoetxea Onsalo



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



errrotatxo okindegia

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

Asvinenea

arte eszenikoen laborategia

Formakuntza, esperimentazio, errepresentazio eta hedapenerako arte gune magikoa

Duela zortzi urte sortu eta azken urtean egituraketa aldetik birplamtamendua jaso duen Arte Eszenikoen Laborategia da Asvinenea. Adunan kokaturiko lokala magia z beterik dagoela ezin ukatu, edozein txokoetara begiratuta ipuin magiko bateko protagonista sentiarazten du bertaratutakoa; sorkuntzarako toki aproposa.

Naiara Roldán de Aránguiz

Galtzaundi, Ainhoa Agirrezabalarekin, Asvineneako Komunikazio Arduradunarekin bildu da Arte Eszenikoen Laborategi honen nondik norakoak eza-gutu ahal izateko.

Asvinenea sortzeko garaian, duela zortzi urte t'ardi, arte eszenikoen inguruan sormen lana lantzeko espazio baten bila elkartu zen Tolosa inguruko jendea. Hamabost bat pertsona elkartu ziren, tartean aktoreak, clown-ak, musikariak, txotxongilo munduko norbanaoak... denek ilusio eta arte eszenikoekiko zaletasuna partekatze nahiarekin. Tolosa eta Tolosa inguruan proiektua aurrera eramateko leku baten bila arituta azkenean gaur egun Adunan egoitza mantentzen duten lokalarekin topo egin zuten. Zubitxiki industriagunean kokaturiko pabilioi hau sagardotegi izateko prest

zegoen horretan erabilera erabat aldatu behar izan zuen; kupel, txotx, janari, sagardoak alde batera utzi eta magia, txotxongiloz, eszenatokiz, argiz, musikaz... betetzeko.

Asvinenea Arte Eszeniko Laborategi egituraren definizioa izanik Ainhoa Agirrezabalari, Asvineneako bazkide eta Komunikazio Arduradunari, Arte Eszeniko Laborategi izatea zer den galdetu diogu. Berak erantzun zehatz eta argia luzatu du, Asvineneako laukote artista bat sabaitik zintzilikatuturiko trapezio, soka eta zintetan akrobazia ariketak egiten dagoela: "Arte Eszenikoen Laborategia arte eszenikoen sormena garatu daiteken gunea bezala ulertzen dugu... eta arte eszenikoak ordea, antzerkia, dantza, akrobazia, txotxongiloak izan daitezke, azken finean, eszenatoki batean gainera eraman daiteken edozein artea".



Asvinenearen sorkuntzan 15 bat pertsona elkartu bazi-
ren ere gaur egun kopuru hau,
hamarkada eskasa igarota,
bikoiztu egin da. Elkarre
moduan egituratuta dagoen Asvi-
nanean 30 bat bazkide daude,
hilero euren kuota ordaindu
eta elkarrearen partaide sen-
titzen direnak. Bazkide izateaz
zer den mintzatu da Ainhoa:
"kuota bat hilean ordaindu eta
errespetuz jokatzeari, elkarbizi-
tza hori mantentzea da. Kon-
promisioa pertsonarekin dator.
Asvinenea elkarre bat da, bo-
luntarioa da, beraz ezin dira
pertsonak erabat lotu, eskai-
nitako ekarpen guztiak ondo
dator".

Hala ere, hizketaldiarekin ja-
rraituta Asvinenea toki berezia
dela agerian uzten du Ainhoak
eta baita bertako partaideak
ere, arte eszenikoak gustuko
izateaz gain, pertsona aktiboak
izatea nahitaezkoa da; arte
eszenikoez hartzaile modura
gozatzeaz gain egile, sortzaile,
hezitzaile... gisa ere gozaten
dutela nabari da.

Bazkideen profilar ere min-
tzatu da Ainhoa Agirrezabala,
kideek 25-40 urte bitarteko
gazteak, berak aitortzen due-
naren arabera, "dagoeneko ez
hain gazte" diren Tolosaldea
eta Donostialdeko artistak
dira. Hala ere, Asvinenearen
baitan antolaturiko ekitaldi,

kurtso, ikuskizunetan tankera
ezberdineko publikoari zuzen-
duak izaten dira; ume, gazte
zein heldu, azken finean, arte
eszenikoak gustuko duen per-
sona orori.

Laborategi honen izaera el-
karrearen da eta finantzaketa
sistemari erreferentzia egi-
nez, autogestioan oinarriturik
dagoela esan beharra dago.
Momentuz diru-laguntzarik
eskatu ez duela zehaztu du
Ainhoak; "gogorra da, azke-
nanean pabilioia hilero-hilero or-
daindu behar da; izerdia bota
behar da". Beharrezkoa den
diru-kopuru hori bazkideen
kuota horietatik gain antola-
turiko eskaintza kulturala ere
diru-iturri izaten dute -direla
ikastaroak, antzerki lehiaketa-
koak, inguruko Udalentzat
prestaturiko kultur ekitaldiak-
Momentuz behintzat inguruko
administrazio publikoei zerbi-
tzu kultural baten ordainetan
diru-sarrera bat eskatzen diete
baina subentzio munduan ez
dira barneratu, auto-kudeake-
ta gestio sistemari eutsiz.

Adunan kokaturik egoteak
nahitaezko galdera eskatzen
du, Asvineneak zer nolako er-
lazioa mantentzen duen bai
Udalarekin eta baita Adunako
herritarrekin jakitea. Harreman
egokia dutela zehazten du
Ainhoak, hala ere, aitortu ere
egiten du erlazio gehiago ere
eduki beharko luketela: "Es-
kaintza garrantzitsua zabaltzen
dugu, kanpora begira Adunari
ere izena ematen diogu, posi-
tiboa da Aduna herriarentzat,
gehiago landu behar dugu...".

Tolosaldearen baitan ego-
teak eta bazkide ugari Tolosa



Juan Larrazpu eraikuntzak, s.l.

• Baserrietako igeltseritza
eta egurrezko esirukturetan
adituak.

• Etxeen berrikuntzak:
- Fatxadak - Teilatuak -
Sukaldeak - Baiñu gelak,
etab...

Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)



Etxebarru zein kalerako
lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

shanti kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa



Asvinenea

Sormenerako estaldura artistikoa



asvinenea eskola

Asvinenea Eskola

Arte eszenikoaren ezagupena transmisioaren bidez sustatu nahi duen elkartearen ekimena da. Artearen transmisioa, egoitzan bertan edo kanpoan hainbat bide erabiliz gauzatzen da. Adibidez kurtso, tailer, hitzaldi, irakurketa zein bideo emanaldi.

Programazio sendo bat eskaini nahi zaio, eskola moduan indarra emanaz. Geroz eta ikastaro gehiago eta ezberdinoak eskaini. Iaz lehenengoz Udako Kurtsoak antolatuz ziren, ikastaro trinkoak.

Asvinenea Espazioa

Asvinenea elkarteak bere ateak parez pare irekitzen ditu eta Asvinenea Espazioa eskaintzen du. Asvinenea Espazioa, proiektu artistikoko garatzeko, kreaziorako, en-

tsegurako leku batean interesatuak dauden pertsona zein taldeei zuzendua dago, bai jardun zehatzetarako edo jarraituetarako.



ASVINENEA ESPAZIOA

Espazio hau ez dago soilik bazkideei zuzendurik. Talderen batek, edozein pertsonak arte lan bat prestatu, entseatu nahi izatekotan, bazkide izan gabe, Asvinenean aukera du horretarako.

Asvinenea Sala

Argiak itzali, teloa gora, ikuskizuna hastear da! Eszenatokia da protagonista bertan antzerkia dantza, akrobazia eta askotariko artistak ikus daitezke.

Asteburuz asteburuko programaziorik ez dago, baina bai ikuskizun solteak eta baita jaialdi ezberdinak ere.



Asvinenea Gira Bira

Asvinenea etxearen muge-tatik kanpo hegan irteteko garaia da, Asvinenea elkarteak bertan nahiz kanpoan sortzen eta antzetzten diren lanen zabalkunde bultzatzaile izan nahi du. Honela arte eszenikoen mugimenduaren sustatzailea eta eragilea ere bada, lan hauen errepresentazioan eta garapenean eraginez. Lan hauek ikuskizun puntualetan edota jaialdi zein biratan zabaltzen dira.



bertakoak izateak ere, Tolosa herria eta Udalarekin ere erlazioa izaten saiatzeko bidea ematen die Asvineneakoei, Ahozkotasan Jaialdia, kasu.

Hausnarketa **prozesuaren**
emaitza

Asvinenea izena txotxongilo munduan jatorria duen laborategi honek urtebetez azterketa eta planteamendu garaian murgilduta egon da. Proiektuak arte eszenikoen baitan eskaintzen duen estaldura oso horri forma zehaztua eman

nahi izan dio arte eszenikoen garapenean beharrezkoak diren atalak kontutan harturik. Hausnarketa prozesu horren emaitza dira Asvinenea Eskola (formakuntza), Asvinenea Espazioa (esperimentazioa), Sala Asvinenea (errepresentazioa) eta Asvinenea Gira-Bira (hedapena).

Lau atal hauen zergatia Ainhoa Agirrezabalak jakitera eman du: "lehenengo pausuan formakuntza behar izaten da eta guk kurtsoak zein hitzaldiak eskaintzen ditugu; behin formakuntza jasotzerakoan, leku bat behar izaten da ikasitako horrekin esperimentatu eta probatzeko, Asvineneak hortaz espazioa eskaintzen du. Horren ondoren, egindakoa eszenatoki batean, jendaurrera eraman behar izaten da, Asvineneak ere horretarako aretoa prest du eta azkenik egoitza kanpo, kalera begira lan horiek ateratzeko aukera ere ematen dugu".

Arte Eszenikoen baitan prozesu hau guztia, era trinkoan eskaintzen duen bestelako gunerik, Gipuzkoa mailan behinik behin, ez du ezagutzen Laborategiko Komunikazio Arduradunak. Horrenbestez, egoera horri erantzuna emateko sortu dira aipaturiko lau atalak: Asvinenea Eskola, Asvinenea Espazioa, Sala Asvinenea eta Asvinenea Gira-Bira.

Egoera honen aurrean beraz zaila da tankera berdineko Arte Eszenikoen Laborategiekin harremanak izatea, baina bai ordea izaera ezberdineko bestelako erakundeekin, direla eskola ezberdinak, udalak, tabernak, antzokiak...

Foto montaiak:
Amaia Arrue



Asvinenea Euskaraz

Ainhoa Agirrezabalaren hitzetan komunikazio helburuen baitan euskararen erabileraren normalizazioa jasota dute, gehien bat gainera kanpora begira erabilitako euskarri komunikatibo ezberdinetan –kartelak, webgunea, mailing-a, Facebook, ...-. Bertan antolaturiko ekintzei dagokionez ordea elebitan izaten dira, euskaraz zein gaztelaniaz; kurtsoetako irakasleen zein ikuskizunetako artisten araberakoa. Bazkideen arteko harremanari dagokionez, gehienak euskaldunak izan arren, Alacanten edo Katalunian jatorria duten bazkideak egonik komunikazioa baztuetan gaztelaniara jotzen du ezinbestez.

Kultur mugimenduaren egoera

Asvinenea Tolosaldeko kultur eragileetako bat izanik ingurua kulturalki hitz eginda zein egoeratan ikusten duten galdetu zitzaion bertako komunikazio arduradunari. Bere hitzetan, "Tolosa inguruan dagoen kultur mugimendua izugarria da; herritarren parte hartzea egiten du berezia, ekimen gehienak herritarrek sortzen dituzte. Erakunde publikoek herrian dauden mugimendu guzti hauei erraztasunak eman behar dizkiete, baita ekimen berriak sustatu ere".

Honetaz gain, ondorengo gaineratu egin zuen: "Inauteriek eragin handia dute tolosarren izakeran. Inauteriak eszenatoki handi bihurtu eta herritarrek euren alor artistikoa ateratzen dute –antzerkia, musika, dantza, moztarokak...-, irudimen handiko festak bihurtuz". Inauterietako izaera honek urte guztian

zehar irauten duela uste du Ainhoa Agirrezabalak.

Asvineneari dagokionean Tolosako kulturaren baitan duen paperari dagokionean nahi beste ez dela hedatu aitortzen du, hala ere, antolaturiko ekintzetara Tolosako jende ugari

bertaratzen da. Edo-nola ere, Tolosan presentzia gehiago izatea gustura hartuko luketela dio Agirrezabalak, "lantzeko zerbait da".

Geroaldiari begira

Urte hauetan guztietan ikastaro ugari, ikuskizun franko, barre mordoia eszenatoki gainean, aurrean eta baita atzean ere. Anekdotak ugari bizi izan dituzte Asvinenekoek, baina garrantzitsuena Ainhoak dioen moduan "eszenatoki gainean antzematen den ilusioa, ikuslearen begietara iristen dena".

Gerora begira egin beharreko lana badagoela aurrekusten du Ainhoak, Laborategiko lau atalak indartu eta kanpora begira erlazioak sortzea kasu, areto alternati-

V. Poltsiko Antzerki Lehiaketa

Martxan da Asvineneko antolaturiko V. Poltsiko Antzerki Lehiaketa. Formatu txikiko ikuskizunen sustapena eta zabaltea, teknika eszenikoekoen ikerketa, balore berrien formakuntza, kultur trukerako espazioen sortze eta kudeaketa eta bestelako elkarteekin harremanak sortzea helburu ditu.

Izena emateko epea zabalik dago martxoaren 18a bitartean. Horretarako testuaren kopia edo obraren sinopsia, lanaren izenburua eta parte-hartzaileen izen artistikoa zein euren datu pertsonalak, harremanetan jartzeko telefono zenbakia eta lanaren behar teknikoak igorri beharko dira; www.asvinenea.com webgunearen bitartez.

Lehiaketa zazpi gala ezberdinetan garatuko da, apirilaren 29an hasi eta maiatzaren 20a bitarteko ostiraletan. Lehen finalaurrekoa maiatzaren 27an eta bigarrena ekainaren 3an ospatuko dira. V. Poltsiko Antzerki Lehiaketaren finala ekainaren 10ean lehiatuko da gaueko 22.30ean hasita.

boen zirkuitu baten barruan sartzea... Asvineneko sorkuntzak eta irudimenak lanean jarraituko du aurrerantzean ere.



Galtzaundi 336
10eko urtarrilak 21

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGUROS
BILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin Eceizabarrena

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Nazioarteko gaurkotasuna ik

Jesus Torquemada nazioarteko politika analistak Nazioarteko Gaurkotasunari Buruzko Mintegia eskainiko du Tolosako Topic Zentroan sei saio ezberdinetan, otsaila eta martxoko sei astelehenetan hain zuzen ere.

12

Erredakzioa



Murgildurik gauden era digital honetan edozein motako informazio inoiz baino eskuagarri dugun honetan, munduan zehar gertatzen denaren inguruko informazioa inoiz baino kantitate altuagoan eskuratzeko gai garen honetan gure mugez haraindira gertatzen denaz jabetzen al gara?

Hedabideetan eskaintzen zaigun informazio gertakizun zehatz horiek ulertzen, aztertzen eta osotasun eta sakontasun batean argitzeko gai al gara? Lerrokatutako datu zehatz horiek interpretatzen ba al dakigu? Mundu zabalean gertatutakoa mapan kokatzeneko gai al gara?

Galdera gehiegi, erantzunak ere anitzak izatea beharrezkoa delako Nazioarteko Gaurkotasunari Buruzko Mintegiak horretan lagunduko du. Tolosaldea Ikastn Etengabeko Ikaskuntzako Zerbitzuak, 25 euroren truke, urtarrilaren 31 bitartean epea zabalik izango du Jesus Torquemada nazioarteko analistak otsailaren 14, 21, 28 eta martxoaren 14, 21 eta 28an eskainiko dituen saioetan izena emateko.

2010ean Ekialde Hurbila, Amerika eta Europa gai nagusiak aztertu baziren ere otsaila eta martxoan eskainiko den bigarren edizio honetan Asia, Afrika eta Ekialde Hurbila, Europa eta Amerikaren gaurkotasunak aztertu izango dituzte aditu donostiarrak.

Otsailaren 14an, astelehenetan, hasiera emango zaio

mintegi honi. Inaugurazio ekitaldian, Torquemada kazetari eta irakaslearekin batera, Gorka Igartua, Tolosaldea Institutuko Zuzendaria; Gemma Zelaia, Ikastneko arduraduna eta Jose Luis Elorza, Eusko Jaurlaritzako Etengabeko Hezikuntzako Zuzendaria izango dira.

Mintegia bi orduko sei saio ezberdinetan banaturik dago eta bere xede nagusia gaur egungo munduaren egoera orokorra ezagutzeko da; gaurkotasun-guneei atentzio berezia eskainiz eta baita geroaldi hurbilean albiste izango direnei ere. Mundua geopolitikoki aztertu eta hauek eragiten dituzten eztabaidagaiak aztertuko dira; immigrazioa, globalizazioa, ingurugiroa eta giza joerak kasu.

Zehazkiago esanda, hasie-

Jesus Torquemada

Nazioarteko gaietan kazetari aditua. ETB eta Radio Euskadiko ohiko kolaboratzailea. Herri Irratian, bidaia saioaren gidari; 'Brújula', asteroko maiztasunarekin. Deusto Unibertsitateko irakaslea, bere irakasgaietan Europar Batasuna eta na-

zioarteko giza politika alorrrak jorratzen ditu.

Bidaia amorratua, 60 herrialdetik gora bisitatu ditu. Zenbait bidaia gida eta saiakeren egile da. Ikastaro, hitzaldi eta mintegiak eskaini ohi ditu erakunde eta unibertsitate ezberdinetan.

asgai eta aztergai


rako bi saioetan, otsailaren 14 eta 21ekoan, Asia kontinentean fokatuko da kazetaria; hizketaldiaren abiapuntua Txinak azken 30 urtetan izandako hazkunde ikaragarria izango da eta horrek sorrarazi dituen barne zailtasunak ere. Txinaz gain Indiari ere erreferentzia berezia egingo zaio, hego-ekialdeko bestelako potentzietei bezala.

Hirugarren eta laugarren saioetan jorratuko den gai orokorra Afrika izango da, horretarako datak otsailaren 28 eta martxoaren 14 izango dira. Afrikak itxaropena galdu duela sinistu arren –gosea, gerra, txi-rotasuna, gaixotasuna... bezalako arrazioak direla medio-baikortasun errealista batean pentsatzeko beta badago, adibide bat baino ez dira mundu osoak behar dituen eta Afrikan kokatzen diren lehengai desiratuak.

Azkenik, bosgarren eta seigarren saioek, aurreko edizioako mintegian aztertutako datuak gogora ekarri eta gai horien eguneratzea egingo du Jesus Torquemadak. Hots, Ekialde Hurbila, Europa eta Amerikaren gaurkotzea; beti ere, munduko krisi ekonomia- ren bilakaera, zergatiak eta gaur arteko garapenak go- goan izanda.

Parte hartzaile kopuruari

dagokionean iaz 200 bat pertsonen izena eman eta saioz saio arretaz jarraitu zituzten Torquemadaren azalpenak, aurtengoari begira antolatzaile-

leen esanetan kopurua berdindu eta gailentzea espero dute. Izan ere, dagoeneko iazko parte hartzaileen %60ak errepikatuko duela baieztatu egin du. 

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza



Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutua- ren baitan kokaturiko zerbitzua da Tolosaldea Ikastn. Zerbitzuaren helburuak pertsonen integrazioa eta norbanakoak ikastera bultzatzea dira; txertatze hori, immigrante, emakume eta denbora luzeko langabetuei bideratuta dago gehien bat. Hala ere, edozein pertsonari zuzenduta dago.

Zerbitzuak lau urte bete dituen honetan Gemma Zelaia arduradunak balorazioa egin nahi izan du: “zerbitzuak gehikuntza izugarria izan du; bailara osoari eskaintzen dio zerbitzu publikoa eta azken urteotan etorkin gehiago etorri da informazio eske”.

Betetzen duen funtzioaren inguruan Zelaia zehaz- tutakoaren arabera: “To- losaldean ikastaro mailan

zegoen gabezia betetzen dugu; argi dugu ikastaroei ez diegula kompetentziarik egin behar”. Eta eurek anto- latutako kurtsoetan parte hartzen duten pertsonen profilaz ere mintzatu da Gemma Zelaia: “norberaren zaletasun eta beharren ar- berako ikasi nahi dituztenak etortzen dira, lanerako ere baliagarriak izan daitezkeela”. Azken finean, zerbitzua- ren helburua bizitza osoan zehar ikastea bultzatzea da, adin mugarik izan gabe.

Informazioa eta Matrikula
Ikastn, Etengabeko
Ikaskuntzako Zerbitzua
Tolosaldea Goi Mailako
LH Institutua
Santa Luzia, 17. 20400 Tolosa
Tel. 943 65 11 47 | 615 77 56 78
www.ikastn.com

 Galtzaundi 
10eko urtarrilak 21

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.


Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoek erakusketak.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA





Santiago Cirugeda

Arkitekto sevillarra. Ezohiko arkitektura bultzatzen duena. Ikasketak amaitu eta bere ideiak praktikara eraman ditu azkeneko hamarkadan, gehienak egoera alegaletan oinarriturik, erantzun sozialak emateko intentzioarekin. Tolosako Box.A Arte Elkarteak gonbidatuta Santiago Cirugeda Tolosan egon da bere lanaren nondik norakoen berri emateko.

Naiara Roldán de Aránguiz

Santiago Cirugedak bere hizketaldiari hasiera emateko argi uzten du Arkitekto Titulua izan baduela, erregeak sinaturikoa, ironia osoz esana, baina bera ez dela arkitektoa izaeraz edo hobeto esanda, arkitektoa izan baino lehen hiritarra dela. Hiritar izanik arkitekto izen ospetsu horiek –hizketaldian zehar behin eta berriz aipatzen dituenak zehazki aitatu gabe, gehienetan zeharka euren la-

nari iruzkin ironikoak luzatuz-eredugarri ez ditu, bai ordea kaleko jende arrunta, egunero-kotasuneko elementuak modu sortzaile eta asmagarri batean erabiltzen dituen.

Santiago Cirugedak laneko egoera sortzaileak proposatzen duen jendea miresten du; gauzak era ez antolatuan erabiltzen duena, espazioak arauetatik at erabiltzen duena. Izan ere, sorkuntzak gizakiari sortu, asmatu eta askatasunerako beta ematen dio.

Egoera berri hauetaz elika-

tzen da Santiago Cirugeda; kalearen jabetzeaz adibidez, norbanakoak zerbait gaineratzen duenean, kaleari bestelako erabilera bat ematen dionean, diseinaturik dagoenaz aparte erabiltzen denean. Lurzoru publikoan ezarritako erabileraz aparte, jarduera berriren bat antolatzeko garaian erantzunak sortzen hasten dira –elkarbizitza, ordenantzak, gizatasuna-, hiritarrek berez sortutako egoera horiekin bat egin behar dute.

Cirugedak argi dauka legez, erabat zehazturik ez dagoen egoera bat aurkezteko orduan artega eta urduritasuna sortzen dela. Askotan zigorrak, borrorak edota eztabaidak areagotuz.

Lan egiteko modua

Arkitekto sevillarra bakarrik hasi zen lanean, horren hurrengo pausua arkitektura estudioa izan zen eta gaur egun sare oso bat zabaldu du, Arkitektura Kolektiboaren baitan sortutakoa. Sare hau berak dioenaren arabera lagunez, konfiantzaz eta proiektu ezberdinez osaturik dago. “Ez dugu proiektu handirik, ez dugu eraikuntza handirik” aldarrikatzen du harro, horren ordez “aholkularitza handiak burutu ditugu, bestelako begirada duen jendeari egindakoa (teilatu batean etxe bat eraikitzea, kooperatiba bat sortzea, orube batean aldi baterako eraikuntza bat muntatzea...).

Hedabideetan agertzeko nahia

Cirugedari sorkuntzazko jarduera hirian nola irudikatzen den interesatzen zaio. Hedabideak ere, bere lanaren isla edo agertoki ditu: “egindako lana komunikabideetan azaltzeko bokazioa izan dut”, dio. Bere



esanetan bere burua salatu egin izan du hedabideetan ageri eta hiritarrei jakinarazteko aurrera eramandako ekintza zehatz horrek zergati bat bazuela azaltzeko. Horren adibide da, Sevillako Erdigune Historikoaren ordenantza zalantzan jartzeko etxe bat aldamiorekin handiagotu izana.

Medioetan agertzeak konplizeak bilatzeko beta eman dio. Honen harira, denborak argi utzi dio ikusgai jartzeak kontu onak zein txarrak dauzkala; onak goraiatu nahi izan ditu, ordea, pertsona berezi ugari ezagutzea, alegia.

Hiri Errezetak

Recetas Urbanas da Santiago Cirugedaren estudioaren eta webgunearen izena. Bertan hiru egunez behin e-mail bat jasotzen dute, egoera konplexuei erantzun emateko. Guztiei erantzuna eman eta ahal dela parte hartzeko konpromisoa omen dute. Tankera honetako proiektuek ordainetan ez dute baliabide ekonomiko gehiegirik ematen baina bai poz ugari eta baita etxebizitza politika ofizial bezalako planteamenduei alternatiba aurkezteko bidea

eman ere: “pertsonek ideiak oparitzen dizkizute, nor diren zehaztu eta zer egingo dutenaren berri ematen digute”.

Cirugedak betidanik gauzen zergatia ezagutzeko arduraz izan du, hori dela eta duela 14 urte, Sevillako Hirigune Historikoa aztertzeke lanetan hasi zen, hiri historikoa izanik ezin omen zen umeentzako kolonpiorik bertan ezarri, elementu garaikideak izanik, hiri zaharrenekin inolako harremanik ez zutelako. Zonalde honetan noski kotxeak, merkatalgune ezagunetako iragarki ‘lizunak’ eta bestelako milaka elementu azaltzen ziren. Horren aurrean arkitektoak lege berraztertze lehen proiektua martxan jarri zuen, obra edukiontzia jartzea posible zela ikusi, lizentziak ordaindu eta kolunpio bihurtu zituen.

Honek hasiera eman zion hirien ordenamendua aztertu eta zalantzan jarriko zituen bestelako proiektu asko eta askori. Santiago Cirugedak berak aitorzen duenaren arabera “betidanik izan izan dut egoeren funtzionamendua ezagutzeko nahia, hiriaren erabilera eskubidea nork diseinatzen duen...

Antolamendua nire interesekoa da, eskaintzen duen garapen aukerak ezagutzen ahalbidetzen didan heinean”.

Hiritarren eskaera asko eta askoren erantzule da Santiago; oinezkoen pasabideak ordenamendu dokumentuetan jasota daudela baina kalean margoturik ez direla ageri? Orduan bere lan taldeak antzeman bezain pronto margoa hartu eta hara gerturatzen da, margotzeko prest. Tankera honetako ekintza izan zen Madrilen bidegorri baten eskakizunaren erantzuna; ordu eta laurdenean Madrilen 11 km-ko bidegorria margotu zuten Udalari dohaineko ikerketa eskainiz, bidegorriaren ibilbiderik egokiena proposatuz. Edota hacker baten laguntzarekin telefono kabina eraiki zutenekoa, munduko edozein tokira 9 minutuz dohainik hitz egiteko aukera ematen zuena. Ekintza hauek egun batetik bestera desagertu egiten dira.

Aipaturiko azkeneko hiru adibide hauek “jolas” modura identifikatzen ditu Santiagok, aldaketa politikoak eragingo dituen proposamen serioagoak heldu bitartean.



Birziklapena

Recetas Urbanas estudioki lan egiteko modua birziklapenean oinarriturik dago. Eraturik duten sarearen bitartez birziklatzeko materialen bilaketa antolaturik dute. Edozein gauza topatu bezain pronto elkarri deitzen diote, materialen banaketarako sarea osatuz. Adibide bat baino ez azaltzarren, Donostiarako sortutako etxebizitza prototipo batean erabilitako materialak Madrileko Cañada Real gunen marjinean futbol zelai bateko harmailak osatzeko erabili izana.

Recetas Urbanas webgunearen zioetako bat birziklapena da, hau da, estudioak berak martxan jarritako proiektu ezberdinen agertoki izatea bisitariak beste edozein gunetan birziklatzeko, antzekoak, bere erara eta beharretara moldaturik egin ahal izateko. Horrela sinatzen du gainera Cirugedak berak aitatutako webgunean: "jarraian erakutsitako errezerata guztiek erabilera publikoa dute, interesa duten hiritarrek azaldutako garapen estrategiko zein juridikoan martxan jartzeko baimena dute".

Arkitektoaren irudiarekin kritikoa

Arkitektoek oro har legerekin gutxi ezagutzen dutela salatu du protagonistak. Alde batera uzten dira egoera legal ugari, baina ezagutzen gero aukerak.

Sareko proiektu nagusienetakoa

45 obra edukiontzi, ijitoen bizileku izandakoak, bilkura batean Zaragozako politikari batek Cirugedari eskainitakoak, erabilera kulturala eskaintzeko betebeharra.

Egoera honen aurrean arkitektoaren erantzuna baiezkoa izan zen, edukiontziak hartu eta elkarte ezberdinekin harremanetan jartzen hasi zen egoitza modura eskainiz. Gaur egun, horren emaitza 15 proiektu ezberdin dira, erkidego autonomiko ezberdinetan hedaturik.

Elkarrekin edukiontziak jaso ahal izateko, proiektu bat garatu behar izan dute, eskainiko zaion erabilera zehaztuz. Edukiontzia kokatu ahal izateko lur sail baten beharra izaten dute elkarrekin, horregatik askotan eta askotan erakunde publiko

zein pribatuekin harremanetan jarri behar izaten dira, baimen horiek lortu ahal izateko. Lur lagapena sortzen da bestelako ekarpenaren trukean.

Istoria bakoitzak, kudeaketa sistema propioa sortu duela dio Cirugedak; baina beti ere sorkuntza kolektiboa bultzatuz. Hezkuntza, arte, diseinatzaile, erakusketarako guneak sortu dira arkitektoaren kolektiboko sare honen bitartez. Beti ere laguntzarik jasotzen ez dituzten kolektibo edo elkarteak izan dira proiektu hauen bultzatzaileak.

Honela, Santiago Cirugedak tolosar gazteei baliabide zein mekanismo ezberdinak erakutsi nahi izan dizkie auto-kudeaketan oinarritutako hiri eredu gisara.

ra ematen dutenak politikariari betearazteko eskakizuna luzatzeko. Gaur egungo arkitekturaren oinarria lehiaketetan aurkitzen da. Dagoeneko beste batzuek diseinaturiko lehiaketetan gainera (zein tokitan, zer nolako eraikuntza, zer nolako erabilpena, non, zein alturarekin, noiz...). Egoera honen aurrean arkitektoak eraikuntzarik politena egiten saiatzen omen da.

Recetas Urbanasen kasuan bestelakoei ematen die garrantzia, hau da, planifikaturik ez dagoen horri edota administrazioak behintzat ahotsik jarri ez dionari. Honela luzatzen da Cirugeda: "gure proiektuek administrazioan ez dute jatorria, ezta enpresa pribatuan ere. Gure proiektuak kolektibo, talde ezberdinenak dira; lan egiten duen norbana-

koarenak, gauza txikiak egiten dituen norbana-koarenak, egoera zehatz baten aurrean erantzun zehatz bat ematen diotenak".

Sortutako sarearen bitartez, tankera ezberdineko jende ugari biltzen dute, materialen birziklapenean oinarritzen dira eta horrenbestez proiektuak zero eurotik hasita lortu dezaketen edo duten dirua bitartean burutzen dituzte, askotan atalka aurrera eramanez, baliabideak iritsi bitartean.

Cirugedari gainera, berak aitortuta, arkitektura itsusia egitea leporatzen zaio. Berak erantzun probokatzailerak luzatzen du: "zeinek ez du lagun itsusi bat? Itsusia baino jatorria dena? Laguna dena?". Horrelakoa da, beraz, bere arkitektura; lagun itsusiaren tankerakoa.



Irakurlearen begietatik



Jone Gorostazu
Irakurlea

Euskal Herriko egoera, Euskal Herria hitza aipatu ere egin gabe; x inguruko eskualdea bezala aurkezten zaigu liburu honetan gure herria. Eta x Guggenheimen, industrializazioaren eta zazpikaleren hiria da. Euskal Herriko egunerokotasuna, euskara aipatu gabe; bazter hizkuntza baino ez. Guretzat ohikoa, betikoa da liburu honetako eszenatokia, baina begirada aldatu egiten da.

Raul Zelik, *Lagun armatua* Itzultzailea: Edorta Matauko

Izan ere, Raul Zelik autore alemaniarra jartzen da Euskal Herriari, azken urteetan izan dituen aldaketei, bere barneko kontraesanei eta euskal gatazkari begira. Beti dugu euskaldunok munduan zehar gutaz duten irudiarekiko kezka; alde batetik, inor gutaz oroitzen ez den ikara. Bestetik, baina, hitz egiterakoan hemengo errealitatearen zati oso murriztuta eta interesatua besterik ez agertzeak sortzen digun amorrua. Eta horixe da *Lagun armatua* liburuan gehien gustatu zaidana, egileak gure inguruarekiko eta euskal arazoarekiko duen ezagutza eta sakontasuna. Irakurleak deskribapen eta gertakari zehatzak irakurriko ditu, kokapenean lagunduko diotenak. Agian, liburuak irakurtzerakoan luze samar suer ta daitezke paragrafo batzuk, baina guretzat egunerokota-

suna baino islatzen ez duten azalpen ugari hauek (torturak, manifestazioak, hilketak, kontrolak...) beharrezkoak dira liburuak alemanieraz idatzia dagoela kontuan hartzen badugu, eta, kontatu ezear, Europa erdialdean arrotz izango liratekeela guretzat gauza jakinak direnak.

Nobelako protagonista eta kontalaria Alex da, gaztetatik Euskal Herrira sarri etorri ohi den alemaniarra. Inoiz elkarrekin ibili ez ziren emakume batekin alaba bat du, eta ez daki zer sentitzen duen berarekiko; maitatu behar luke, baina ez du maitasun hori bizi. Orain Rabee izeneko mutil-lagunarekin dabil, baina beraien arteko harremana ere hausten hasia da, eta Alexen nahi bakarria bakarrik, lasai egotea da. Horrela, ikerketa bat egin asmoz berriro gurera itzuli da baina, bat

-batean, gainera etorriko zaio espero ez zuen iragana Zubietan, bere aspaldiko lagunaren argazkia egunkarian ikusten duenean. Zubietak 1985ean Sarrionandiari lagundu zion Martuteneko espetxetik ihes egiten, eta geroztik iheslari moduan ibili da. Orain ETako buruzagitzat jotzen dute, eta laguntza eskatuko dio Alexi autoz eraman dezan. Alexek, jakin, badaki Zubietari laguntzeak ze ondorio ekar diezaioken, eta amets ere egiten du bainuontzi, poltsa eta elektrodokekin. Baina, azkenean, laguntza hori ematea erabakitzen du; penintsulan zehar egindako bidaian, Zubietaz gain, bidelagun izango ditu Alexek beldurra eta zalantza ere, eta horiek izango dira libururen kontakizun orriz orri.

Aipagarria da liburuak, izenburutik bertatik hasita, Sa-

rionandiari egiten dion aipua; izan ere, Raul Zelik itzuli zuen alemanera *Lagun izoztua*, eta nobela honetan ere oso presente izango da Sarrionandia; Alexek halaxe esaten dio Zubietari, berak Sarrionandiari lagundu ziolako laguntzen diola orain berari.

Liburu gomendagarria delakoan nago, gustura irakurtzen dena, gure errealitateari buruzko beste ikuspegi bat ematen duena eta intriga sorrarazten duena.

Juan Mari Ansaren Aralar**k**o Malloak

Zenbakitan

2002an egindako eskaera, Aralar**k**o Adiskideak elkar^{te}aren 75. urteurrena ospatzeko. 8-9 urteko lana.

2010ean argitaratu. 535 orrialdeko liburu mardula emaitza modura, 2,664 kilogramoko pisua duena. Liburu eta DVDa 25 euroren truke salgai. 17 ibilbide zailtasunaren arabera sailkatuta Araitz bailararen baitan.

Juan Mari Ansa 12 urterekin hasi zen mendizaletasunean murgiltzen, eta afizio honekin 4 hamarkada darama. Honakoa 5. liburua du, 20 urterekin 1. idatzi zuenetik, berak finantzatuta.

Naiara Roldán de Aránguiz

Egia esan ez nuen asko eza gutzen. Malloako gailurrak edo mendi-puntak pasatzen genituen, baino gu Amezketatik edo Guardetxetik igotzen ginen. Zonalde hori ez genuen hainbeste ezagutzen. Niretzako ere berrikuntza ere bazen, horrek deitu zidan atentziorik gehien lana egiteko. Planteamendua mendi-ibilbideak egitea zen baina bertako baserriarrek eta artzainekin hitz eginda, pixkanaka konturatu ginen mendiaz aparte askoz ere altxor gehiago bazegoela. Orduan hasi ginen istorioak, baserrietan kontatzen zizkidatenak jasotzen. Liburu erdia baino gehiago istorioa, kondairak, etab. dira.

Izan ere liburua bi zati garrantzitsuetan banatuta dago, alde batetik ibilbideak eta bestetik Malloetako, Araitz bailarako, bizimodu, kondairak, pertsonaiak... Nola prestatu duzu atal bakoitza?

Lana egiten ari nintzen heinean aldatzen joan naiz. Hasieran ibilbideak baino ez ziren aurreikusten, ondoren pentsatu nuen ibilbide bakoitzari istorioa eranstea, eta azkenean 17 ibilbiderekin aurkitu nintzen istorioak askoz gehiago ziren. Orduan sistema aldatu behar izan nuen. Liburuaren lehen partean ibilbideak jasotzea eta bigarrenengoan aipatutako istorio eta kondairak zehaztea erabaki nuen. Hori martxan erabakita-

18



Liburua idazteko ideia Aralar**k**o Adiskideak elkar**te**ak egindako eskaera batean du oinarria, noiz konturatu zineten gaia sakontasunez landu eta eskatutako epera ezin zela moldatu?

2002. urtean Aralar**k**o Adiskideak elkar**te**aren baitan planteatzen hasi ziren 75. urteurrena ospatzen zuenez hurrengo urterako argitalpenen bat egitea, pertsona ezberdinen lanak bilduz. Batzuek lana egin ez zutelako eta bestetik nire kasuan uste baino luzeago egiten ari zelako, 6 hilabete beranduago elkartu ginenean jakinarazi nien liburu bat egiteko material nahikoa bazegoela. Elkar**te**ak aurrera egi-

tea erabaki zuen, datak ahaztu, 75. urteurrena ahaztu, eta liburu mardul bat egiten hasi ginen.

Zergatik Aralar**k**o Malloak? Zein berezitasun garrantzitsu dute?

Aralar**k**o Adiskideak izanik Aralar aldera jotzea beharrezkoa zen. Betidanik, Aralar**k**o buruz hitz egiterakoan, erdiko Aralar horretaz hitz egiten dugu, Amezketatik eta Larraitzetik sartzen den bidea edo Guardetxetik abiatutako bidez. Beti gelditzen dira ahaztuta Ataungo mendiak eta ekialdea, hau da, Araitz bailaratik igotzen den zonaldea. Zerbait berria egin nahiarekin Malloari heldu genion.

Zer harritu zaitu gehien horren gertu eta agian horren ezezagun den lurralde honetaz?

koa izan da.

17 ibilbide. Garai batean artzainek erabilitakoak baina gaur egun asko eta asko desagertzeko zorian daudela aipatzen duzu. Errazak, eskuragarriak al dira edozein mendizalerentzat?

Egia esan, paseatzeko modukoak, errazak direnak, ibilbide gutxi daude. Aralar zerbaitegatik erakargarria baldin bada duen desnibel handiagatik da. Beheko herriak 200-300 metro-tan daude eta goiko gailurrak ordea 1.400 m. inguru horretan, 1.000 metroko desnibela dago. Horri ezin zaio paseoa esan, prestatua egon behar duzu. Aldapa handiak direnez, malkorrak, bideak ezagutu behar dira, kosta egiten da, ez da horren erraza.



Ibilbide asko tapatzen ari dira, artzainek gaur egun ez dituzte erabiltzen. Beste aldetik, gainera, neguan aldapa handiak daudenez, elurra dagoenean, elur jauziak egon daitezke, arriskua badago eta bustia dagoenean ere nahiko konplikatu izaten da. Udaran berriz belarra hasten denean, bideak erabat tapatuta geratzen dira. Dudarik gabe udaberria da bertan ibiltzeko momenturik aproposena.

Belar kableek liburuan aipamen berezia hartzen dute. Zer nolako garrantzia izan zuten Araitz bailaran?

Garai batean basoan egurra ateratzeko erabili izan zituzten, Italiarrak hasi ziren erabiltzen. Ideia hartu eta Ataungo alde horretan, Araitz bailaran, erabiltzen hasi ziren 1923-24 aldera. 40-45 urtez erabili zuten, 1967an azkeneko belar kablea erabiltzeari utzi zitzaionean. Bertakoentzat izugarritzko asmakuntza izan

zen. Belarra menditik hartu eta bizkarrean jaitea gurdi-bideak iristen diren punturaino, izugarritzko lana zen, bakoitzak sorta bakarra eramaten zuen bizkarrean. Belar-kableek menditik bota eta minutu gutxitan beherraino jaitea ahalbidetu zuten. Bertakoentzat belar kablea ilargira joateko asmakuntza baino gehiago izan zen.

Liburuaren eskaintzan Araitz eta Beteluko agintariak aipatzen dituzu liburu baimarako baserri guztietara heltzea ahalbidetzeagatik. Zer nolako garrantzia izan dute bizilagunek liburu hau idazterakoan?

Izugarria. Ezagutzen nuena Jesus Elozegi tolosarrak egin-dako lanen bitartekoa zen, toponimia eta argazki zahar ugari, Lazkaoko benediktinoen lekuan utziak. Bailarara bertaratu nintzenez benetako lana hasi zen. Gozamina izan da baserriar eta artzainekin aritzea. Liburuaren egitekoan dedikatzen zuten hori

izan nuen. Bertako agintariak liburu egiten ari nintzela liburu hori baserri guztietara zabaltzea interesatzen zitzaiela esan zidaten. Planteamendu hori gustatu zitzaigun.

Bestetik ere senide asko gogoan izan dituzu liburuan eskertzerakoan. Erraza al da eguneroko bizimodua, familia, bestelako lana eta mendiaz idaztea bezalako zaletasun bat bateragarri egitea.

Kostata. Lana 8-9 urtetan eginda dago, mantso egin behar izan dut. Alde batetik eskolako lana -nire diru iturria-, bestetik, etxeko lanak -komunitate lanak-, ondoren afizioak -korrika egitea, kirola- eta azkenik mendia eta mendiaz idaztea. Gauza asko dira. Denak gurdian jarri eta denak gutxika eraman behar dira, ezin da gauza bakarrean buru belarri sartu eta beste guztiak ahaztea.

ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiak
Beirate artistikoak
Dutxa-ixiturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak
Kotxe-aseguruak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-aseguruak
Denda-aseguruak
Erreireoak
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informazioa Zerbitzuak
Ordenagailuak eta konputerrak
Egitea eta jarduera-entzako
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

Urtarrilaren 21etik otsailaren 4ra bitarteko hitzordduak

irakurri entzun Ikusi

7 kolore
Jon Artetxe

10 urte bete dira Jon Artetxek "7 kolore" liburua argitaratu zuenetik; hori aitzaki hartuta berrargitalpenari ekin eta literatura, pintura eta musika uztartu ditu. Argazkiak, ilustrazioak, musika bateratuz munduko bazter ezberdinen berri ematen du bertan Cristina Fernandez ilustratzaile eta Francisco Ibañez musikariarekin batera. Lan honetan idazleak egindako hamaika bidaietan bizi izandako esperientziarik berezienak biltzen dira, zazpi atal, zazpi koloretan banaturik: beltza, grisa, horia, gorria, berdea, urdina eta zuria.

Akustikoak eta bestelako
uneak
Une

Une taldearen hirugarren diskoa. 2010eko abuztutik urrira bitartean grabatu dute Ortuellako Groove estudioetan. Aurreko bi diskoetako zazpi abesti ekarri ditu taldeak modu akustikora eta hiru abesti berri (Min, Haize orratza eta Gautxori bat lehioan) sortu eta akustikotasuna itsatsi die.

Dragoi Ehiztaria
Patxi Barco

Zurriola Groupek eta Kubako Zinematografia Institutuak ekoiztutako pelikula, euskaraz inoiz egindako garestiena. Gorka (Asier Hormaza) ETA-pm kide batek, gero 1980ko hamarkadan Nikaragua eta El Salvadorren internazionalista ibilutako, Aitor semeak iraganari buruz egindako galderak direla eta, ezin du bere bizitza azaldu.

Festa

Afro-brasildar festa
Urtarrilaren 22an, Bonberenean, gaueko 22.30ean.

Ikuskizunak

Mintzo. Dantzaz konpainia. Urtarrilaren 28an, Tolosako Leidorren, 20.30ean. 10 €. Mintzo gizabakoen arteko ulermenaren, mestizaiaren eta tolerantziaren poema bat da.

La Guinda Flamenko Taldea. Otsailaren 4an, Tolosako Leidorren, 20.30ean. 10 €

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ikuskizuna. Otsailaren 4an, Ibarren, 18.00tan.

Theatre de deux mains. Viaje a la Poligonia. Txotxongiloak, testurik gabea. Urtarrilaren 29an, Topic Aretoan, 18.00tan. Helduak 7 € eta haurrek 4.

Hitzaldi, Mintegi eta Ikastaroak

Tolosa Historia eta Oroimena. 1936-45. Miren Llonak otsailaren 3an, arratsaldeko 19.30ean, Tolosako Pleno Aretoan "De la miliciana a la emakume: una visión de género de la Guerra Civil en Euskadi".

Nazioarteko Gaurkotasanari Buruzko Mintegia. Jesús Torquemada. 6 saio. (Otsailak 14, 21, 28 eta martxoak 14, 21 eta 28). Informazioa eta matrikula Tolosaldea Ikastn: 943 65 11 47 edo www.ikastn.com. Izena emateko epea zabalik urtarrilaren 31 bitartean. DEA ekiopoen erabilera ikastaroa. DEA (Kanpo Desfibriladore

Automatikoa). Urtarrilaren 24 eta 25ean, arratsaldeko 17.00-21.00 bitartean. DYA Gipuzkoako antolatuta. Izena emateko 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu.

Kontzertuak

Vomito eta UK Bill. Urtarrilaren 21ean, Bonberenean. 22.30ean. Hesian. Urtarrilaren 28an, Bonberenean, 22.30ean.

Erakusketak

Artearen merkatua. Tolosako GKO Galleryn, urtarrilaren 22a bitartean. 10.00-13.00 eta 17.00-20.00 ordutegian.

Mixmedia (Bartzelona). Tolosako GKO Galleryn, urtarrilaren 29tik aurrera apirilaren 2ra bitartean.

Jeiki, jeiki! Tolosako Iñauteriak herritarren irudietan erakusketak. Urtarrilaren 21etik hasita

martxoaren 18 bitartean, Aranzburu Jauregian.

Bertso Jaialdia

Txolarre Irratiak antolatutako bertso jaialdia. Urtarrilaren 22an, Tolosako Leidor Aretoan, arratsaldeko 18.00etan. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Arkaitz Estiballes eta Jon Maia. Gai jartzaila: Amaia Agirre. 8 euro.

Krossa

Urtarrilaren 23an, Ero Etxe Elkartek antolatutako Krossa Tolosako kaleetatik barrena.

Tolosa Kantari

Urtarrilaren 30ean, Agirre doktorearen plazan (Tontokale), eguerdiko 12.00etan.

Uzturre Ikastola XI. Kultur Astea, urtarrilaren

Urtarrilaren 24an, astelehena

"Argentinako ahaztuak" Nerea Arregirekin saioa DBHko ikasleentzat.
Hitzaldia: "Eskola laguntza" Izkaliren eskutik. (17:30).

Urtarrilaren 26an, asteazkena (18:00)

Hitzaldia: "Galera eta dolua gure etxeetan" Joxe Amiamaren eskutik.

Urtarrilaren 28an, ostirala (22:00)

ALURR dantza taldearen "Oinazez" ikuskizunaren emanaldia Belabieta kiroldegian.
Sarrerak: 10€

Urtarrilaren 25an, asteartea (18:00)

Hitzaldia: "Elikadura osasuntsua" Kutxa fundazioaren eskutik.
Kike Amonarrizen saioa "XXI. Mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko)diren gauzak kamarrada!" LH5-6 eta DBHko ikasleentzat.

Urtarrilaren 29an, larunbata.

Zirko tailerra Belabieta polikiroldegian LHko ikasleentzat (15:00-18:00)

Zeinu hizkuntza la- burmetraien II jaialdia

2011ko azaroaren 12an Tolosako Leidor Aretoan Zeinu Hizkuntza Laburmetraien II Jaialdia ospatuko da. Gaintzen Sari hauetan parte hartzeko epea zabalik dago maiatzaren 31 bitartean. Informazioa <http://gaintzen.blogspot.es> webgunean.

Ipuin Txokoa

Urtarrilaren 20an, arratsaldeko 18.00etan, Tolosako Haur Liburutegian.

24tik 31ra

Txokolatada 18:00etan plazan. 18:30ean ALURR dantza taldeko gaztetxoaren "Errota" emaldia.

Urtarrilaren 30ean, igandea

Mendi irteera: Albiztur-Aldaba

Urtarrilaren 31an, astelehena

"Ateak zabalik" Emeterio Arrese erakuntzan (17:00 euskaraz) (18:30 gaztelerez)

Hitzaldiak Benito Izagirre Kultur Etxean izango dira.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazioz atutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Haur eta gazteen aisialdiko zuzendari ikastaroa	2011/01/22	100
KDA ekipoen erabilera ikastaroa	2011/01/24	8
Ureztatze-sistemak instalatzea eta mantentzea	2011/01/31	25
Lore artean koloreak eta egiturak ezagutzea	2011/02/01	21
Internet + e-administrazioa	2011/02/01	20
Komunikaziorako teknologia berriak: enpresa 2.0: wikiak, blogak, sare sozialak, sindikazioa.	2011/02/07	40
Lorategien diseinu aurreratua (2a: "Gidaliburua. Bezeroaren Programatik Proiektatzea")	2011/02/09	50
Nazioarteko politika Jesús Torquemadarekin	2011/02/14	12

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 21

Bengoetxea E.
(Nagusia, 7)
Tolosa

Larunbata, 22

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Igandea, 23

Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

Astelehena, 24

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Asteartea, 25

Olarreaga I.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Asteazkena, 26

Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Osteguna, 27

Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Ostirala, 28

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Larunbata, 29

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Igandea, 30

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Astelehena, 31

Bronte C.
(Korreo, 20)
Tolosa

Asteartea, 1

Ugarte M^oT.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Asteazkena, 2

Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Osteguna, 3

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Ostirala, 4

Bengoetxea E.
(Nagusia, 7)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 681 134	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	Urreemendi egoitza
Bidegoian	943 683 361	Larrialdia, Suhiltzaileak
Medikua	943 681 134	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	Ertzantza
Medikua	943 653 329	Tolosa Gasa
Irura	943 690 720	Lizartza
Osasun zentroa	943 650 931	Medikua
Tolosa	943 006 800	Orendain
Anbulatorioa, Iarriald.	943 650 931	Medikua
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Orexa
		Medikua
		943 682 228

Galtzaundi 336
10eko urtarrilak 21



SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

Errotulazioa & inujia
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bialara 25, 1-04 atea
20271 Inura (Gipuzkoa)

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalok
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886 - 943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615 - 943 671 149

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen dituz, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoa tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldaria eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

Salgai

• Igini markako akordeoia saltzen da. Taina eta beltza. Berau eramateko gurditxoa opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Limosin arrazako 6-8 hilabeteko txeror idiskoa erosiko nuke zezenentarako. Kartaduna. 943694736 / 618185337



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Momentuz era askean ezin duzu aritu, zure pentsamenduetan murgiltzea ez da egokia. Zortea eta pazientzia aldeko izanda, gauzak nahi bezala aterako dira. Pasatako kontuekin apurtzeko eta bide berriei ekiteko unea.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Pasa berri diren festak ez dira onak izan. Ezagutezin zaude, gogaiturik, eztanda egiteko zorian. Barrenak hustu itzazu baina kontuz damutuko zaituzten jokaerakin.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Zure etorkizun hurbilean eragin handia izango du elkarrizketa batek, zure ikuspuntutik erabat aparte dagoena. Harkor egoten saiatu zaitez, ez ezazu galdu ikasteko aukerarik.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Zure baikortasunak ingurukoak txundituko ditu. Hala ere, tentuz ibili zaitez, izan ere ez dituzu denak zure aldeko. Zuhurtziaz jokatu beharko duzu ondo ezagutzen ez dituzte pertsonen aurrean.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Etxean istripu arinen bat izateko arriskutan zaude. Ez da ezer larria izango, baina erne egotea komenigarria da asteburua izorratu ez dadin. Zure bikoteak zerbaite eskatuz gero sofatik ez mugitzeko aitzakia izango duzu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zure inguruan guztia mantsotu dela dirudi. Kontuak uste baino mantsoago doaz. Ez zaitez urduritu, fruituak jasoko dituzte eta, poztasuna iristear da. Ariketa fisikoak ez lizuke kalterik egingo.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Energia berreskuratu beharrean zaude. Gosari ederra prestatu eta inork enbarazurik egin gabe gozatu ezazu. Familia artean ekintzaren bat egitea ez da aukera txarra.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Energiaz gainezka egongo zara. Animatuta egongo zara; normalean egiten ez dituzun gauzak egiteko aprobetxatu ezazu, seguru probetxagarriak izango direla. Egindako promesak bete itzazu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Nahikoa duzu, festa gehiegi izan dituzte azken aldian. Egun hauetan zu izango zara garrantzitsua, betebeharrak ahaztu gabe zuretzako denbora har ezazu. Osasun kezka bat izanez gero, behar duen denbora eskaini iezaiozu.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

2011 urtearen sarrerarekin aldatu zarelaren ematen du. Komunikatzeko gaitasuna gorenean duzu, abantaila honi probetxua atera iezaiozu. Familia arteko arazoei irtenbidea topatuko diezu. Aldaketarako prest egon zaitez.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Arrazioa zure alde dagoela uste duzu, tentuz ibili, jendeak eztabaidak ez ditu gustuko. Heltzen zaizkizun aholkuei erreparatu iezaiezu, probetxagarriak izan daitezke eta. Etxean ere zuhurtziaz jokatzeari dagokizu.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Duela egun batzuk loa kentzen zizunak dagoneko ez du garrantzirik. Pozez gainezka zaude eta oztopoen aurrean erabakiak hartuko dituzte. Hala ere, zuhurtziaz ibili eta komeni ez zaizkizun kontuak alboratu itzazu.



Konfiantzan, Ikastola



Aurrematrikula

Epea
Urtarrilaren 31tik Otsailaren 11ra

Ordutegia
09:00-12:30 / 15:00-18:00

Anoetako Herri Ikastola

943 65 29 32
www.anoetakoherriikastola.net



Irurako Ikastola

943 69 43 74
www.irurakoikastola.net



Jesusen Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurki)

943 69 23 21
www.jesusenbihotzaikastola.com



Laskorain Ikastola (Tolosa)

943 69 71 22
www.laskorainikastola.net



Tolosako Inmakulada Ikastetxea

943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com



Uzturpe Ikastola (Ibarra)

943 67 12 99
www.uzturpe.net



HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 EGUN behar izaten ziren gorputz bat baltzamatzeko

2,3 MILIOI

harrizko bloke erabili ziren piramide handian



6.000 €

kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltzamatzea

3.500 GAUZA

balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoltzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermarekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

25 urte
TOLOSAN

